

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. Limako Gailurreko alde ona***
- 2. Petrolio merkatzea ez da ona guztiontzat***
- 3. Hidrokarburoen Legearen aldaketa: negozioaren alde, herritarren kontra***
- 4. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Naturaren eskubideak jasotzen ditu***
- 5. Alternatiba Itzulia, hiru hilabeteko alternatiben erakusleihoa***

### 1. Limako Gailurreko alde ona

Aurtengo Klima Aldaketaren aurkako Nazio Batuen gailurra bukatu da Liman, COP20 gailurra. Beste urteetan bezala, ELAk bere balorazioa egin du. Eta zoritxarrez, aurrekoen antzekoa da. Urteak pasatzen dira baina ezer ez da aurreratzen.

Limako COP 20an ondorengo “adostasunetara” iritsi dira:

- Herrialde bakoitzak 2015ean zehar adierazi beharko ditu zein konpromiso hartzeko dagoen prest 2015ean Parisen sinatu beharreko akordio loteslean.
- Klima aldaketaren eraginei aurre egiteko adaptazio neurriak klima aldaketa geldiarazteko mitigazio neurrien pare jarri dituzte, lehen ematen zitzaizen garrantzia handituz.
- Kiotoko Protokoloaren bigarren epealdia 21 herrialdek bakarrik onartu dute, akordio hau indarrean sartzeko beste 144 herrialdek ratifikatu beharko lukete.

Ezer zehatzik ez ezta ezer berririk ere, eta are okerrago, harridurarik ez aurrera egiten ez dela ikustean. Bagenekien horrelako zerbait izango zela emaitza, horregatik galdu genuen aspaldi esperantza gobernuen arteko negoziazio prozesu hauetan. ELAn argi dugu zerbait aldatuko

bada gizartearen bultzadagatik aldatuko dela, eragile sozialek, mugimenduek, eta beraien arteko aliantzek. Horregatik goibileraren ofizialaren jarraipena egin beharrean gailur alternatiboa edo “Herrien Gailurra” deiturikoa da gure erreferentzia, hau da benetako goibileraren. Benetan errepresentatzen gaituen Herrien Gailurrean honako aldarrikapenak egin dira:

- Gobernuak herrien lurralde, eskubide, bizimodu, kultura eta ohiturak errespetatzea.
- 2015ean sinatu beharreko akordio lotesleari buruzko eztabaida irekitzea. Akordio honek bere baitan hartu beharko ditu industrializatuak ez diren herrialdeek airera isurtzen ez dituzten emisioak eta energia fosil iturririk ez esplotatzea, eta ordainetan jaso behar duten konpentsazio ekonomikoa energia eredia aldatzeko izatea.
- Nazioarteko finantza transakzioei zerga jarri eta fondo hau justizia soziala bermatuko duen eredu inklusibo baterantzako trantsiziorako erabiltzea.
- Herrialde garatuenean planetaren suntsiketan duten ardura historikoa onartzea eta Hegoaldearekin duten zor historiko eta ekologikoa erreparatzea.
- Lan duina izatea den giza eskubidea errespetatzea, eskubide indibidual eta

kolektiboekin. Gizarte segurantzaren eta babes sozialerako sistemetara sarbidea unibertsalizatzea. Askatasun sindikala. Eta gure lanarekin sortutako aberastasuna modu ekitatibo eta justuan banatzea.

- Nekazaritza familiar eta ekologikoa, eta herrien elikadura burujabetza bultzatuko duten politika publikoak egitea.

- Soluzio faltsuak bertan behera uztea (garapen garbirako mekanismoak, REDD programa, agrokombustibleak, frackinga, geoingeniaritza, transgenikoak, nuklearrak,...)

- Merkataritza librerako tratatuak baztertzea, hauen bitartez ura, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza bezalako oinarrizko zerbitzuak pribatizatzen dituzte.

- Lan erreproduktiboa bizitzaren mantenurako oinarrizkoa dela onartzea.

- Baliabideen erabilera eraginkorra, kontsumo arduratsua eta hondakinen gestio iraunkorra egitea.

- Ura eta saneamendua berdintasunez eta osasun baldintza egokietan bermatzea, horretarako bide bakarria enpresa publikoak izanik.

ELAK Herrien Gailurreko aldarrikapenak bere egiten ditu. 2015ean, Parisko COP21era bidean, aldarrikapen

hauek egiteaz gain, klima aldaketari aurre egiteko dagoeneko baditugun alternatibak ezagutarazten eta zabaltzen jarraituko dugu. Bide honetan zita garrantzitsua izango da Euskal Herriko Eskubide Sozialaren Karta bultzatzen dugun eragile sindikal eta sozialek urriaren 24rako Bilbon antolatu dugun Alternatiben Herrixka. Alternatibak badaudelako. Sistema alda dezagun, ez klima.

## **2. Petrolioa merkatzea ez da ona guztiontzat**

Azken asteetan petrolioaren prezioa ia maila historikoetara jaitsi da. Lehen ondorioa gure poltsikoetan igarri dugu, gasolina askoz merkeago dago. Baina merkatzearen beste ondorioetako bat gasolina kontsumoa igotzea izan daiteke, eta hau ez da positiboa.

Nature aldizkari zientifiko entzutetsuaren arabera, hurrengo 40 urteetan ezingo ditugu erabili petrolio erreserben heren bat, gas erreserben erdia eta ikatzaren %80a. Soilik horrela izan dezakegu klima aldaketa kontrolatzeko %50eko probabilitatea. Klima aldaketa kontrolatzeko, planetaren batez besteko temperatura ez da 2°C baino gehiago igo behar. Hau da IPCCko zientzialariek (Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldea) Nazio Batuentzat eginiko txostenetan

ezarririko muga. 2°Cko muga hau gaindituz gero, beroketa globalaren eraginak oso larriak eta kontrola ezinak izan daitezke.

Ez du ELAk esaten, Natureren arabera, “emaitzek erakusten dute arduradun politikoek beraien herrialdeetako erregai fosil guztiak azkar esplotatzeko dituzten asmoak ez direla bateragarriak tenperatura mugarekin (2°C) duten konpromisoekin. Konpromiso politiko hauek martxan jarriko balira, erregai fosilen esplorazioan egiten dituzten etengabeko inbertsio izugarriak ez lirateke beharrezkoak izango. Ez ohiko ekoizpenaren areagotze oro bateraezina da batez besteko beroketa bi gradutara mugatzeko ahaleginekin. Galtzaileak konpentsatuko dituen eta guztientzat ekitatiboa izango den mundu mailako akordio klimatiko batek soilik inposatu ditzake mugak epe luzera erregai fosilen erabileran”.

Komunitate zientifikoak urteak daramatza erregai fosilen esplotazioa alde batera uzteko eskatzen. Orain denborarik gabe geratzen ari garela esaten ari dira, mugara iritsi garela. Baina erabakiak hartu behar dituztenak beste alde batera begiratzen dute, eta erregai fosilen alde egiten jarraitzen dute. Noiz arte? Ez dago

denbora gehiago.

### **3. Hidrokarburoen Legearen aldaketa: negozioaren alde, herritarren kontra**

Herritar askok frackinga edo itsasoan egin nahi diren petrolio prospekzioen aurrean azken hilabeteetan hartu dugun kontrako jarrera sendoaren aurrean, Rajoyren gobernuak irtenbide bakarra ikusi du bere arrazoi gabeko politika suntsitzailea aurrera eramateko, jendea diruz erosteko ahalegina, besteok beraien berdinak garelakoan.

2014 bukaeran 1998etik indarrean zegoen hidrokarburoen legea (34/1998 Legea) aldatu da. Lege honek enpresen inizatiba libreak bere eragin eremua zabaltzea ahalbideratu zuen, eta ordura arte legean lekurik ez zuten errealitate teknikoak ordenamendu juridikoan sartu ziren. Orain, 2014ko abenduko aldaketak, hidrokarburoen produkzio balorearen gaineko zerga bat ezarri du, horrela hidrokarburo-hobietatik datozen errenta ekonomikoak gizarte osoarentzat izan daitezken. Jarduera honetatik bildutako tasen zati bat kokatuta dauden Udaletxe eta Autonomia Erkidegoetara joango direla aurreikusten dute. Hobiak kokatzen diren lurzoru jabeen ere urteko produkzio balorearen arabeko konpentsazio bat

emango zaie.

Frackinga eta petrolio prospekzioak 1998an arautu ziren. Oraingo aldaketak ez ditu mugatzen, guztiz kontrakoa. Orain, teknika hauen aurrean dagoen herritarren erantzun jendetsua ikusirik, Industria Ministerioak ahots hauek isilarazi nahi ditu frackingaren eta petrolio prospekzioen oposizio herritarra (gero eta handiagoa dena) erosteko ahaleginak eginez, eta herritarren borondateari dioten errespetu falta erakutsiz. Neurri hauek herritarren borondatea makurtzeko jada hartu diren beste neurri batzuei gehitu behar zaizkie, esaterako, kontsultak egiteko debekua, frackingaren inguruko erabakiak estatuaren kompetentzia bihurtzea aurka zeuden Autonomia Erkidegoak saihesteko, edo Autonomia Erkidegoek onartutako moratoria edo teknika hauek debekatzeko arauak Epaitegi Konstituzionalean salatzea.

Neurri hauek, gobernuak krisi klimatikoaren eta ingurumen krisiaren aurrean duen itsutasuna eta irtenbideak bilatzeko borondate falta nabarmentzen dute. Guztiz kontrakoa da jarrera, ingurumenarekiko eta pertsonen osasunerako kaltegarriak diren tekniken aldeko apustuarekin jarraitzen du, eta gero

eta gehiago bultzatzen ditu erregai fosilak energia berriztagarriak bultzatu beharrean.

#### **4. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Naturaren eskubideak jasotzen ditu**

Beharrezkoa da ingurumena babestea, mantentzea eta berreskuratzea, egungo zein etorkizuneko belaunaldien mesedetan. Eskubideaz gain natura zaintzeko betebeharra daukagu, biodibersitatea alor guztietan mantentzeaz gain ekosistemaren oreka mantentzekoa. Gure ondorengok ingurumena guk jaso dugun bezala edo ahal bada hobeto jasotzeko eskubidea dute. Ingurumena erabili, gozatu, landu eta zaindu. Horregatik Eskubide Sozialen Kartak naturaren eskubideak ere jasotzen ditu:

##### **“Natura, eskubideen jabe”**

Bere forma guztietan, naturak badu existitzeko, irauteko eta bere bizi-zikloak mantentzeko eta birsortzeko eskubidea. Pertsonok, aldiz, berau mantentzeko erantzukizuna eta betebeharra dugu.

Euskal Herrian bizi garenok badugu ingurumen osasuntsu eta naturalaz gozatzeko eskubidea, eta, hortaz, pertsonen, naturaren eta bizitza forma desberdinen arteko elkarreragin onuragarria babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko.

Jarduera ekonomiko publiko edo pribatu guztiek komunitatearen interesetik kudeatuko dituzte airea, ura, lurzorua, kostaldeak, klima eta bizi-forma guztiak, baliabide horiek gure belaunaldiaren eta etorkizuneko belaunaldien mesederako erabiliz eta planifikatuz; horretarako, baliabideen xahuketa eta gehiegizko ustiapena ezabatuko dira, eta baita garapen neurrigabea ere, horren ordez kontsumo arduratsua, berrerabilera, birziklapena eta ordeko energia berriztagarriak bultzatuz.

Eskualde mailan, gobernu eta instituzioek lurralde-garapena diseinatu dute, ikuspegi deszentralizatzailez eta jardueren askotarikotasuna sustatuz alor hauetan: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza, industria, turismoa, energia eta zerbitzuak.

Ingurune naturalaren jabetza komunala sustatuko da eta nekazaritza-lur publikoa eskuratuko da jarduera produktiboentzat eta lehenengo sektorea bultzatzeko. Administrazio publikoek Euskal Herriko nekazaritza-elikagaien ekoizpena eta elikadura-burujabetza bultzatuko duten politikak bideratuko dituzte. Nekazaritza-elikagaien hurbileko industrializazio eta

merkaturatzea sustatuko dira.

Hiri-garapena pertsonen neurria egokituta egingo da, behar bakoitzari modu integratuan erantzunez, adin, sexu/genero eta aniztasun funtzionalaren arabera.

Euskal jendartearen behar energetikoei erantzutea sektore estrategikotzat jotzen da, eta hortaz, soilik instituzio publikoek planifikatu eta kontrolatu behar dute. Gobernu eta instituzioek neurri egokiak programatuko dituzte bertoko energia-iturriak guztiz berriztagarriak izan daitezen. Energia-enpresa publiko bat eratuko da, ekoizpen-baliabide propioez, bere bidez oinarrizko behar energetikoak bete egiten direla bermatzeko.

Administrazio publikoek kontsumo energetikoa ahalik eta gehien murrizteko kultura sustatzeko politikak garatuko dituzte, bai alor publikoan eta bai alor pribatuan. Etxebizitzen buruaskitasun energetikoa bultzatuko da; horretarako, energia-galerak murrizten dituzten eraikuntza-teknikak aplikatuko dira, energia berriztagarrien aprobetxamendua ahalbidetzen duten teknologiak ezartzeaz batera.

Etxebizitza guztiek eskubidea izango dute gutxieneko energetiko bat dohainik eskuratzeko, etxebizitzen oinarrizko

bizigarritasun beharrak betetzeko adinakoa.

Herritarrek eskubidea izango dute kalitatezko garraio bide publikoak izateko, Euskal Herriko hiri barruko eta hiri arteko ongi-etorri hurbilen beharrei egokituta. Garraio bide horiek bereziki hartuko dituzte kontuan mugikortasun fisikoko arazoak dituzten pertsonen beharrak.

Agintaritza publikoek Euskal Herriko berezko beharrak ase ditzakeen oinarritzko nekazaritza-elikaduraren ekoizpena bideratzeko politikak sortuko dituzte. Nekazaritza-elikagaien hurbileko industrializazio eta merkaturatzea sustatuko da.

Kalterik gabekoak direla zientifikoki frogatuta ez dagoen bitartean, debekatuta egongo da elikagai transgenikoen

merkaturatzea, bai pertsonen kontsumorako eta bai animalien kontsumorako.”

Eskubide hauek gaika zehazten dira (kontsumoa, energia, garraioa, lurralde antolaketa,...) “Prozesuaren ondarea” dokumentuan. Eskubideen Karta [lotura honetan](#) topatu dezakezue bere osotasunean.

### **5. Alternatiba Itzulia, hiru hilabeteko alternatiben erakusleihoa**

2013an Baionan Alternatiben Herrixka antolatu zuen Bizi! Mugimenduak, orainoan, Alternatiben Itzulia antolatu du. Itzuli hau Baionatik aterako da ekainaren 5ean, lehen Geltokia Donostia izanik, eta Parisera iritsiko da irailaren 26an. Alternatiben erakusleihoa izango da hiru hilabetez. [Ikusi bideoa](#).